



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

GIPUZKOAKO
INGENIARITZA
ESKOLA
ESCUELA
DE INGENIERÍA
DE GIPUZKOA

MUGIKORTASUN PROGRAMETAKO IKASLEAREN ESKULIBURUA

Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola

MUGIKORTASUN PROGRAMETAKO IKASLEAREN ESKULIBURUA GIE_2023-24

PLAZA EMAN DIDATE. ZER EGIN BEHAR DUT ORAIN?	2
Informatu	2
Koordinatzailearekin Hitzarmen Akademikoa Adostu.....	2
Beharrezko Dokumentazioa Prestatu eta Epe Barruan Entregatu	3
Elkartruke Programan Parte Hartzeko Baldintzak	3
Egonaldia Luzatu edo Mozteko Eskaera.....	3
Plazari Uko Egitea	4
I.ERASNKINA	5
Baliozkotze Proposamena	5
Ikaslearen Betebeharrak.....	5
ETENGABEKO EBALUAZIOARI UKO EGITEA: hitzarmen akademikoan jasota ez dagoen irakasgaireren batean matrikulatzen bazarete 22/23an, eta ebaluazio jarraitua egitea posible ez baduzue, kanpoan zaudetelako, ikus "Ikasleen Ebaluaziorako Arautegia". Kontsulta ezazu dagokion irakasgaiaren irakaslearekin.	7
DESTINOAN ONARTU NAUTE. JOAN AURRETIK ZER EGIN BEHAR DUT?	9
Bisadoak.....	9
Matrikula	9
Mediku Asegurua.....	9
Diru Laguntzak	10
Hizkuntza test-a.....	10
DESTINOKO UNIBERTSITATEAN NAGO. ZEIN PAUSU JARRAITU BEHAR DITUT? 11	11
Egonaldi hasierako ziurtagiria.....	11
Hitzarmen Akademiko definitiboa/ aldaketak.....	11
Etengabeko ebaluazioari uko egitea:	11
Egonaldia luzatu edo mozteko eskaera.....	11
Deialdiak	12
II.ERASNKINA	13
HITZARMEN AKADEMIKOA. ALDAKETA PROPOSAMENA.....	14
COMPROMISO ACADÉMICO. PROPUESTA MODIFICACIONES.....	14
ERASMUS programa. Hitzarmenean aldaketak egiteko dokumentua.....	16
LATINOAMERIKA programa. Hitzarmenean aldaketak egiteko dokumentua	18
BESTE NORAKOAK programa. Hitzarmenean aldaketak egiteko dokumentua	19
SICUE programa. Hitzarmenean aldaketak egiteko dokumentua	20
Egonaldia Luzatu/Mozteko Eskaera	22
NIRE EGONALDIA AMAITZEAR DAGO. ETA ORAIN?	23
Egonaldi amaierako ziurtagiria	23
Inkesta.....	23
Notak/baliozkotzea	23
Gradu Amaierako Lana	23
Ez Betetzeak	23
LABURPENA	25

PLAZA EMAN DIDATE. ZER EGIN BEHAR DUT ORAIN?

Informatu

- Zer egin behar dut destinoko unibertsitatean onarpena eskatzeko?

Elkartruke programetako ikasleen onarpena tramitatzekeo prozedura ezberdina izan dezake helmugako unibertsitate bakoitzak. Kontsultatu zure kasuan nola kudeatu behar den onarpena.

- [Erasmus+](#): Kontsulta ezazu destinoko unibertsitatearen web orrialdea. Nazioarteko Zuzendaritzatik argibideak helaraziko dizkizute
- [SICUE](#): Ikaslea arduratuko da.
- [Latinoamerika:UPV/EHUko Nazioarteko Harremanetako bulegoaren web orrian aurkituko duzu informazioa.](#)
- [Beste Norakoak: UPV/EHUko Nazioarteko Harremanetako bulegoaren web orrian aurkituko duzu informazioa](#)

- Aurretik bertan egondakoekin hitz egin / Destino berera doan jendearekin kontaktatu

Zuri egokitutako unibertsitate berean egondako ikasleek inork baino hobeto azalduko dizute tramitazioa nola egin, zein den destinora iristeko modu egokiena eta bizitzeko leku proposena, zein irakasgai aukeratu, etab.

Koordinatzailearin galdetu eta aurreko urteetan bertan ikaslerik izan bada, kontaktuan jartzeko aukera izango duzue.

Bestalde, zurekin batera beste ikasleren bat joango bada destino berera, bai Eskolakoa edota EHUko beste Eskola edo Fakultate batekoa, komenigarria da kontaktuan jartzea. Joan aurretik hainbat tramite burutu beharko dituzu eta lagungarria izango da seguruenik ikaskideekin konpartitzen baduzu.

Gainera, EHUko Nazioarteko Harremanetako web orrian ikus dezakezu:

- Zuen destino berera ea beste inor badoan. Ikus lotura honetan:
 - [Erasmus+](#) / [Latinoamerika](#) / [Beste Norakoak](#)
Zerrenda hauetan NAN zenbakiak soilik ikus ditzakezu. Zure destinoa doan norbaitekin kontaktuan jarri nahi baduzu, eskatu Nazioarteko Zuzendaritzan.



- Facebook-eko taldean sartuz gero beste ikasleekin kontaktuan jar zaitezke. Zu zoazen herrialde berera doazen beste ikasle batzuk ezagutzeko edota Zu zoazen herrialdean orain dauden ikasleak ezagutzeko:

- <https://www.ehu.eus/es/web/nazioarteko-harremanak/facebook-taldeak>

Koordinatzailearekin Hitzarmen Akademikoa Adostu

Zer da hitzarmen Akademikoa?

Norakoan zein irakasgai egingo dituzun eta GIEn zein irakasgai baliozkotuko zaizkizun jasotzen duen hitzarmena da.

Hitzarmena adosteko, Nazioarteko Harremanetako Koordinatzailearekin, Maddi Garmendiarekin, bilduko zara.

Bilerara joan aurretik zure hitzarmen proposamena landu beharko duzu, helmugako unibertsitateko web orrian irakasgaien inguruko informazioa bilduz.

Bilera egunerako, prest eraman beharko dituzu hitzarmen proposamena jasotzen duen taula bat, eta zure proposamena justifikatzen duen idatzia. Komenigarria da proposamen bat baino gehiago eramatea, lehen aukera onartua izango ez balitz, beste bat izateko (ikus eranskina: Behin behineko hitzarmen Akademikoa. Txantiloia web orrian duzu eskuragarri.).

HITZARMEN AKADEMIKOA. PROPOSAMENA

Helmugako unib. Egingo diren irakasgaiak Asignaturas a cursar en univ. extranjera			Baliozkotu nahi diren UPV/EHUko irakasgaiak Asignaturas de la UPV/EHU a reconocer			
Kodea Cod.	Irakasgaiaren izena Denominación asignatura	Kreditu. Cred.	Kodea Cod.	Irakasgaiaren izena Denominación asignatura	Kreditu. Cred.	Maila Curso

Bilera honetan bestalde, ikasleen betebeharren dokumentua sinatuta entregatu beharko duzu ([ikus I. Eranskina](#)) eta baita Istripu eta Aberriatze-Asegurua ordaindu izanaren egiaztatzea ere.

Beharrezko Dokumentazioa Prestatu eta Epe Barruan Entregatu

Destinoko unibertsitate hainbat dokumentu bidali beharko dituzu. Horietako batzuk GIEko koordinatzaileak sinatu beharko ditu.

Bidali beharreko dokumentuen artean egon ohi dira:

- Behin Behineko hitzarmen Akademikoa (koordinatzailearekin adostu ondoren GAURetik ateratakoa)
- Espediente Akademikoa/Transcript of Records (eskatu Nazioarteko Zuzendariordetzan eta bidaliko dizuegu)
- Elkartrukeko ikaslea zarenaren ziurtagiria (GAURen daukazu)
- NANA edo pasaportearen kopia (konprobatu indarrean daudela!)
- Istripu eta Aberriatze-Asegurua

Elkartruke Programan Parte Hartzeko Baldintzak

Elkartruke programan parte hartzeko baldintzetako bat da 1. mailako irakasgai guztiak gaindituta izatea.

Uztailean lehenengo mailako irakasgairen bat pendiente baldin badaukazu, mugikortasunari uko egin beharko diozu.

Egonaldia Luzatu edo Mozteko Eskaera

Egonaldiaren iraupen aldaketa ez da automatikoa. ([baldintza orokorrak](#))

Egokitu zaizun plazaren iraupena aldatu nahi baduzu, luzatu edo moztuz, lehenbailehen jakinarazi guri korreo elektroniko bat bidaliz (politecnica.internacional@ehu.eus) eta zure eskaera arrazoituz.

Zure eskaera aztertuta aldaketa egiten saiatuko gara, beti ere UPV/EHUko Nazioarteko harremanetako zuzendaritza eta destinoko unibertsitateak aldaketa onartzen badute.

Kontutan hartu, jasoko duzun dirulaguntza egokitu zaizun egonaldiaren iraupenaren arabera dela. Lehen lauhilekoan joatea egokitu baldin bazaizu eta egonaldia luzatzea erabakitzen baduzu, bigarren lauhilerako ez duzu diru-laguntzarik jasoko. Aldiz ikasturte osorako joatea egokitu bazaizu baina egonaldia moztea erabakitzen baduzu, jasoko duzun diru-laguntza benetako egonaldiaren arabera izango da. Iraupena errealak kalkulatzeko, egonaldi hasiera eta amaierako ziurtagiriak erabiliko dira.

SICUE programaren kasuan, ikus SICUE programako "[BALDINTZAK eta MUGAPENAK](#)" dokumentuan EGONALDIAREN IRAUPENA puntuan jasotakoa.

Plazari Uko Egitea

Edozein arrazoigatik mugikortasunari uko egingo badizou, GAUREn "uko egin" botoia sakatu eta guri korreo elektronikoz komunikatu behar diguzu (politecnica.internacional@ehu.eus).

Uko egitea ezarritako epeetatik kanpo adierazten baduzu, Errektoreordetzak penalizazioa aplikatuko dizu eta ezingo duzu mugikortasun eskaera berririk egin.

I.ERASNKINA

Baliozkotze Proposamena Ikaslearen Betebeharrak

BALIOZKOTZE PROPOSAMENA PROPUESTA DE CONVALIDACIONES

Ikaslearen izen-abizenak Nombre y apellidos alumno/a			
NAN/ DNI			
MUGIKORTASUN PROGRAMA PROGRAMA MOVILIDAD	ERASMUS <input type="checkbox"/>	SICUE <input type="checkbox"/>	BESTE NORAKOAK OTROS DESTINOS <input type="checkbox"/>
			LATINOAMERIKA AMERICA LATINA <input type="checkbox"/>
HELMUGAKO UNIBERTSITATEA UNIVERSIDAD DESTINO			
HERRIALDEA PAÍS			
LAUHILEKOA CUATRIMESTRE	1 <input type="checkbox"/>	2 <input type="checkbox"/>	Ikasturte osoa <input type="checkbox"/> Curso completo
IKASTURTEA CURSO ACADÉMICO	20__/__		

Helmugako unib. Egingo diren irakasgaiak Asignaturas a cursar en univ. extranjera			Baliozkotu nahi diren UPV/EHUko irakasgaiak Asignaturas de la UPV/EHU a reconocer			
Kodea Cod.	Irakasgaiaren izena Denominación asignatura	Kreditu. Cred.	Kodea Cod.	Irakasgaiaren izena Denominación asignatura	Kreditu. Cred.	Maila Curso

Ikaslearen sinadura Firma del/de la estudiante	
Goian aipatutako programaren UPV/EHko koordinatzaile gisa, ikasle honen mugikortasunarekin ados nago. Ikasleak "helmugako unibertsitatea" zutabean aipatutako irakasgaiak egingo ditu eta "UPV/EHU" zutabean agertutakoak baliozkotuko zaizkio, beti ere, helmugako unibertsitateko azterketa edo progak gaintzen baditu.	Como coordinador/a/responsable en la UPV/EHU del programa arriba mencionado, doy mi conformidad a la movilidad del/la estudiante arriba indicado. El/la mismo/a cursará las asignaturas relacionadas en la columna denominada "universidad de destino" y le serán reconocidas por las asignaturas que figuran en la columna "UPV/EHU", siempre y cuando supere los exámenes o pruebas de la universidad de destino
Data/Fecha	
Koordinatzailearen sinadura Firma de la coordinadora	

MUGIKORTASUN PROGRAMAK 2023/24. IKASLEAREN BETEBEHARRAK

AUTOMATRIKULA: uztailean 2023/24an egingo dituzuen irakasgai guztien matrikula egin behar duzue. Bai hemen egingo dituzuen irakasgaiena baita Hitzarmen Akademikoan jasotakoena ere bai. Gogoan izan gehienez 90 kreditutara matrikulatzea daukazuela.

ETENGABEKO EBALUAZIOARI UKO EGITEA: hitzarmen akademikoan jasota ez dagoen irakasgaiaren batean matrikulatzen bazarete 22/23an, eta ebaluazio jarraitua egitea posible ez baduzue, kanpoan zaudetelako, ikus ["Ikasleen Ebaluaziorako Arautegia"](#). Kontsulta ezazu dagokion irakasgaiaren irakaslearekin.

BIDAIATU AURRETIK:

- Atzerrira zoaztenek istripuetarako eta aberriratzeko **mediku aseguru gehigarri** bat egin behar duzue, aurreikusitako egonaldi OSOAN gerta litezkeen gorabeherak estaltzeko. Aseguruaren ordainagiriaren kopia aurrez aurkeztea derrigorrezkoa da, Koordinatzaileak zuen Hitzarmen Akademikoa sinatzeko. Bidali kopia politecnica.internacional@ehu.eus helbidera.
- Sinatuta bidali behar duzue movilidad.internacional@ehu.eus helbidera, zuen GAUR plataformako profilean dagoen subentzio hitzarmena.
- Galdetu helmugako koordinatzaileari zein dokumentu aurkeztu behar duzuen iristen zaretenean.
- **BISATUA:** beharrezkoa den kasuetan, destinoko herrialdeak hala eskatzeko badu, bisatua lortzeko izapideak egin beharko dituzue.
- Europara zoaztenek (Erasmus programa)
 - Gizarte Segurantzaren **Europako Osasun Txartela** eguneratu eta kopia bidali politecnica.internacional@ehu.eus helbidera
 - hizkuntza test bat egin beharko duzue OLS plataforman (Online Linguistic Support). Mugikortasunaren aurretik bat eta ondoren beste test bat.

HELMUGARA IRISTEN ZARETENEAN:

- **HASIERAKO ZIURTAGIRIA:** GAURetik inprimatu. Sinatuta eta zigiluarekin bidali Leioako Nazioarteko Harremanen Bulegora (movilidad.internacional@ehu.eus), helmugako unibertsitatean sartzen zarenetik **hilabete igaro baino lehen**.
- Helmugako koordinatzailearekin bilduko zarete Hitzarmen Akademikoa berrikusteko. Aurrez egin ez baduzue, sinatzen dizuenean bidali kopia politecnica.internacional@ehu.eus helbidera.
- **HITZARMEN AKADEMIKOAN ALDAKETAR:** Iristen zaretenetik **hilabete** daukazue aldaketak proposatzeko. **Aldaketak arrazoitu eta justifikatu** beharko dituzue. Proposamenarekin batera **aldaketa dokumentua** eta **irakasgai berriaren programa** bidali behar duzue. Bi koordinatzaileen onarpena/sinadura (Eskolakoa/helmugakoa) behar duzue. **Aldaketa ondoren hitzarmena nola geratzen den jasotzen duen taula ere bidali behar diguzue.**
- **EGONALDIAREN LUZAPENA:** Ez da beti posible. Izatekotan, koordinatzaileen (jatorrizkoa eta helmugakoa) baimena behar duzue. Hitzarmena zabaldu eta mediku aseguru gehigarriaren indarraldia luzatu izanaren ziurtagiria aurkeztu behar diguzue, politecnica.internacional@ehu.eus helbidera bidaliz.

EGONALDIA AMAITZEAN:

- **BUKAERAKO ZIURTAGIRIA:** GAURetik inprimatu. Sinatuta eta zigiluarekin bidali movilidad.internacional@ehu.eus eta politecnica.internacional@ehu.eus helbidetara, egonaldia bukatzen duzuetik **hilabete igaro baino lehen**. (dokumentu hau jaso ez bada, ezin dira zuen notak grabatu)
- **AZKEN TXOSTENA:** ERASMUS+ programako partaideek korreo elektronikoko bat jasoko dute azken txostena osatu dezaten.
- **EIGko balorazio inkesta:** egonaldi amaieran lotura bidaliko dizuegu, inkesta bete dezazuen.
- **NOTAK/ONARPENA:** hitzarmen akademikoan jasotakoaren arabera irakasgaien eta Gradu Amaierako Lanaren onarpena gauzatu ahal izateko, helmugako unibertsitateak zuen notak helarazi behar dizkigu. Eskatu lehenbailehen bidali ditzaten.

BETEBEHAR HAUEK INOLAKO AZALPENIK GABE BETE EZEAN, HAINBAT ONDORIO ETOR LITEZKE: BEKA EZEZTATZEA, IKASKETA KONTRATUA ETETEA, FINANTZA HITZARMENA EZEZTATZEA (ETA ONDORIOZ, AURRETIK JASOTAKO FINANTZA-LAGUNTZA GUZTIA ITZULTZEKO DERRIGORTASUNA) ETA ERREKTOREORDEZTATIK GERORA SUSTATUTAKO ZEINHAI MUGIKORTASUN PROGRAMATAKO HAUTAPEN PROZESUETATIK KANPO GERATZEA.

NAZIOARTEKO HARREMANETARAKO BULEGOAK IKASLE@EHU.EUS KONTUA ERABILIKO DU NAZIOARTEKO MUGIKORTASUN PROGRAMEKIN ZERIKUSIA DUEN EDOZER KOMUNIKATZEKO. BERAZ, OHITU ZAITEZ KONTU HORI ERABILTZERA.

Nazioarteko Harremanetako Zuzendariordetza

	Nire betebeharrak irakurri ditut, ezagutzen ditut eta guztiak betetzeko konpromezua gain hartzen dut
	Baimena ematen dut, ondorengo ikasturtetan destino berera doan ikasleren batek nirekin kontaktatu nahiko balu, nire korreo elektronikoa berari emateko

NAN zkia.:

Izen Abizenak:

Sinadura

DESTINOAN ONARTU NAUTE. JOAN AURRETIK ZER EGIN BEHAR DUT?

Bisadoak

Zenbait herrialdetara joan aurretik bisadoa tramitatu beharko duzu. Horretarako seguruenik destinoako unibertsitatearen onarpen gutuna beharko duzu.

Kontsulta ezazu zure destinoaren kasuan nola egin behar duzun:

- [UPV/EHU-AL Programa](#)
- [Beste Norakoak programa](#)

Matrikula

Mugikortasuna burutzeko derrigorrez UPV/EHU n matrikulauta egon behar duzu. Ezin duzu atzerrira joan matrikula egin gabe.

Uztailean, 2022/23ean egingo dituzun irakasgai guztien matrikula egin behar duzu. Bai hemen egingo dituzun irakasgaiena baita Hitzarmen Akademikoan jasotakoena ere.

Hitzarmen Akademikoa GAUREn grabatuta izango duzunez, bertan jasotako irakasgaiak automatikoki matrikulatzeko markatuta agertuko zaizkizu. Hitzarmenean jasotazkoaz gain beste irakasgai batzuk egingo badituzu GIEn, matrikulara gehitu beharko dituzu.

Ikasleen nazioarteko mugikortasun programei buruzko arautegiak dioenez, "7.7.- Nazioarteko mugikortasun programetan parte hartzen duten ikasleek ez dute nahitaez matrikulatu beharko gairitu gabeko irakasgaietan, beste batzuetan lehenengoz matrikulatzeko baldintza gisa."

Gogoan izan, gehienez 90 kredituko matrikula egitea daukazuela. Kopuru hori gairiditzen baduzu, jarri kontaktuan Eskolako Idazkaritzarekin.

Mediku Asegurua

- [Medikuntza, istripu eta aberriratzeko aseguru](#)

Destinoko unibertsitateek onarpen eskaerarekin batera bidaltzeko eskatzen dute batzutan. Bestetan, hara iristen zaretenean eskatuko dizuete.

Edozein kasutan, Hitzarmen Akademikoa adosteko Nazioarteko Harremanetako zuzendariordearekin biltzen zarenean, medikuntza, istripu eta aberriratzeko aseguruaren ziurtagiria aurkeztu beharko diozu eta kopia eskaneatuta politecnica.internacional@ehu.eus helbidera bidali beharko duzu.

Ziurtatu beharko da, aseguruak atzerrian egingo duzun egonaldi OSOA betetzen duela. Tramite hau betetzen EZ bada, programatik kanporatua izan zaitezke.

Edozein aseguru partikular izan daiteke. Ibili-EHU ASEGURU MEDIKUAK aukera interesgarria eskeintzen du UPV/EHUko ikasleentzat: <https://www.ehu.eus/eu/web/kontratazioa/ibili-ehu>

COVID 19:

- **Ibili aseguru:** 19-kobidaren estaldurak osasun-arreta (gaixotasuna hartu denean) eta aberriratzeko barne hartzen ditu, beharrezkoa izanez gero, hau da, medikuak aginduta. [Garrantzitsua: estalduraren xehetasunak kontsultatu](#)
- **Beste aseguru batzuk:** kontratatutako aseguruak Covid-19ren gaixotasun-estaldura barne hartzen duela egiaztatzea gomendatzen dugu.

- [Europako Osasun Txartela](#)

Mugikortasuna Europan burutuko baduzu, Europar Osasun Txartela eskuratu behar duzu (galdetu Gizarte segurantzako bulegoan) eta kopia bidali behar duzu politecnica.interancional@ehu.eus helbidera.

- [Erantzunkizun zibileko aseguru](#)

Destino batzuetan erantzunkizun zibileko aseguru eskatuko dizute. EHU-k badauka kontratatua ikasle goztiarentzat aseguru bat. Behar baduzu, Nazioarteko Harremanetako zuzendariordetzan eskatu kopia.

Diru Laguntzak

Diru Laguntzak Koordinazioaren eta Nazioarteko Harremanen arloko errektoreordetzatik kudeatzen dira. Informazio eguneratua aurki dezakezue ondorengo loturan:

[Mugikortasunerako diru laguntzak](#)

Hizkuntza test-a

Erasmus+ mugikortasun bateko onuradunek hizkuntza test ba tegin beharko dute OLS plataforman, Nazioarteko Harremanen Bulegoak emandako jarraibideak aintzat hartuta.

Plaza eman ondoren, Online Linguistic Support aplikaziotik (OLS) ikaslearen korreo elektronikoko pertsonalera bidaliko da gonbidapen bat gaitasun linguistikoaren online derrigorrezko azterketa bat egiteko, mugikortasuna egin baino lehenago, eta beste bat, mugikortasuna egin ondoren

Mugikortasuna egin baino lehenago online hizkuntza azterketa egiten ez bada, ezin izango da mugikortasuna egin Erasmus+ programatik kanpo geratuko da ikaslea. Hizkuntza proba eginez, UPV/EHUK ez du atzerrian egindako ikasketaren onarpen akademikoa emango, eta beka itzuli beharko da.

Online egiten den lehenengo ebaluazioaren emaitzak baloratu ondoren, UPV/EHUK erabakiko du gomendagarria den on line hizkuntza ikastaroa jarraitzea. Ikastaroa hautazkoa da.

Laguntza ekonomikoaren ordainketa derrigorrezko online bigarren ebaluazio-proba egitearen menpe egongo da. Bigarren ebaluazioa egin ezean, Erasmus beka itzuli beharko da.

DESTINOKO UNIBERTSITATEAN NAGO. ZEIN PAUSU JARRAITU BEHAR DITUT?

Egonaldi hasierako ziurtagiria

Egonaldi hasierako ziurtagiriaren txantiloia GAUREn daukazu. Inprimatu eta eskatu destinoko unibertsitatean sinatu eta zigilua jartzeko.

Gero eskaneatu eta bidali Nazioarteko Mugikortasun Bulegora, ondorengo helbideetara:

- Erasmus+/Latinoamerika/Beste Norakoak: movilidad.internacional@ehu.eus.
- SICUE: seneca@ehu.eus

Diru laguntza jasotzeko ezinbestekoa da dokumentu hau bidaltzea. Iristen zaretenetik hilabeteko epean bidali behar duzu.

Hitzarmen Akademiko definitiboa/ aldaketak

Destinora iristen zarenean zure hitzarmen akademikoan aldaketak egin behar dituzula ikusten baduzu, hilabeteko epea daukazu koordinatzaileari hitzarmen proposamen berria eta justifikazioa bidaltzeko (maddi.garmendiaa@ehu.eus), horretarako prestatutako txantiloia erabiliz.

Prozedura:

1. Koordinatzaileari bidali (maddi.garmendiaa@ehu.eus) zuen aldaketa proposamena
 - Zein irakasgai aldatu duzun. Arrazoi justifikatua eta irakasgai berriaren programa
 - [Aldaketa proposamen taula](#) osatuta, aldaketen ondoren hitzarmena nola geratuko litzatekeen adieraziz
2. Koordinatzailean proposamena onartzen badu, aldaketen dokumentu formala bete beharko duzu. Programa bakoitzak formato ezberdina dauka horretarako. [II.Eranskinean](#) ikus ditzakezu dokumentuak. Aldaketen dokumentua **sinadura eta zigilu guztiekin** daukagunean (jatorriko unibertsitatea/destinoko unibertsitatea/ikaslea), aldaketak GAUREn grabatuko ditugu.
3. Konprobatu GAUREn grabatutako hitzarmena egokia dela. Zure egonaldia amaitzen denean, ikasketen errekonozimendua egiteko oinarria hitzarmen hori izango da.

Aipatutako dokumentu hauek guztiak [GIEko web orrialdean](#) dituzue eskuragarri.

Etengabeko ebaluazioari uko egitea:

Hitzarmen akademikoan jasota ez dagoen irakasgairen batean matrikulatuta baldin bazaude GIEn, eta ebaluazio jarraitua egitea posible ez baduzu, kanpoan zaudelako, kontsulta ezazu irakasgai bakoitzaren Irakasgai Gida eta jarri harremanetan dagokion irakaslearekin, zer egin behar duzun jakiteko.

Gaiari dagokion araudia urtetik urtera alda liteke. Kontsulta ezazu [Graduko Titulazio Ofizialetako Ikasleen Ebaluaziorako Arautegia](#).

Egonaldia luzatu edo mozteko eskaera

Egonaldiaren iraupen aldaketa ez da automatikoa. ([baldintza orokorrak](#))

Destinoan zaudela egonaldia moztu edo luzatu nahi baduzu, lehenik eta behin bi koordinatzaileen oniritzia beharko duzu. Zure egoera azaldu eta egonaldia moztu/luzatzeko eskaera bete eta sinatuta helarazi beharko diguzu.

Hitzarmen akademiko berria proposatu beharko duzu, hitzarmen akademikoaren aldaketetarako prozedura berdina jarraituz.

Gainera, egonaldia luzatzen baduzu, mediku aseguru gehigarriaren indarraldia luzatu izanaren ziurtagiria aurkeztu behar diguzu, politecnica.internacional@ehu.eus helbidera bidaliz.

[II.Eranskinean](#) eta web orrialdean dituzu eskuragarri bete beharreko dokumentuak.

- Hitzarmen akademikoaren aldaketarako dokumentua
- Egonaldia luzatu/mozteko eskaera

Deialdiak

Ikasleen nazioarteko mugikortasun programei buruzko arautegiak honako hau dio deialdiei buruz:

“7.8.– Atzerriko unibertsitatean hitzarmenaren barruan sartutako irakasgaien deialdiei dagokienez, unibertsitate horretan irakasgai horietarako eta mugikortasuna egiten den ikasturtean egiten diren deialdietara aurkezteko eskubidea izango du ikasleak.

7.9.– Mugikortasunaren ikasturtean, ikasleak hitzarmenean jasotako irakasgaiak atzerriko unibertsitatean gainditu ez baditu edo deialdietara aurkeztu ez bada, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatean ez du horien azterketa egiteko eskubiderik izango. Edonola ere, ikasleak gainditu ez badu eta egonaldia amaitu ondoren atzerriko unibertsitatearen deialdira aurkeztu nahi badu, urruneko azterketa egin ahal izango du Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatean, baldin eta horretarako baldintzak bideragarriak badira, atzerriko unibertsitateak aukera ematen badu eta dagokion dokumentazioa ematen bazaio ikastegiko nazioarteko mugikortasuneko arduradunari edo haren ordezkoiari. Hori eginez gero, atzerriko unibertsitatearen ardura izango da bai proba prestatzea bai ebaluatzea.

Salbuespen gisa, atzerriko unibertsitatean gainditu ez den irakasgaia Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatean dagokion titulua amaitzeko ikasleari geratzen zaion irakasgai bakarraren balioidea bada, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko deialdi batean azterketa egin ahal izango du, betiere irakasgai balioideak 12 kreditu baino gehiago ez baditu. Ikasketak amaitzeko irakasgai bakarra kontsideratzeari begira, ez dira kontuan hartutako praktiketako kredituak, gradu amaierako lana, kanpoko praktikak edo ikasketa planetan irakasgai baliohide gisa sartutako irakasgaiak.”

(Ikus [Nazioarteko mugikortasun programei buruzko arautegia](#))

II.ERASNKINA

Hitzarmen Akademikoa aldatzeko proposamena
Hitzarmen akademikoan aldaketak egiteko txantiloia. Erasmus+
Hitzarmen akademikoan aldaketak egiteko txantiloia. Latinoamerika
Hitzarmen akademikoan aldaketak egiteko txantiloia. Beste Norakoak
Hitzarmen akademikoan aldaketak egiteko txantiloia. SICUE
Egonaldia/iraupena aldatzeko eskaera

HITZARMEN AKADEMIKOA. ALDAKETA PROPOSAMENA COMPROMISO ACADÉMICO. PROPUESTA MODIFICACIONES

Ikaslearen izen-abizenak Nombre y apellidos alumno/a				
NAN/ DNI				
MUGIKORTASUN PROGRAMA PROGRAMA MOVILIDAD	ERASMUS <input type="checkbox"/>	SICUE <input type="checkbox"/>	BESTE NORAKOAK OTROS DESTINOS <input type="checkbox"/>	LATINOAMERIKA AMERICA LATINA <input type="checkbox"/>
LAUHILEKOA CUATRIMESTRE	1 <input type="checkbox"/>	2 <input type="checkbox"/>	Ikasturte osoa <input type="checkbox"/> Curso completo	
IKASTURTEA CURSO ACADÉMICO	20--/--			
IKASTEGIA CENTRO	Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola Escuela de Ingeniería de Gipuzkoa			
HELMUGAKO UNIBERTSITATEA UNIVERSIDAD DESTINO				
HERRIALDEA PAÍS				

HELMUGAKO UNIBERTSITATEAN EGINGO DIREN IRAKASGAIK ETA UPV/EHUⁿ BALIOZKOTUKO DIRENAK ASIGNATURAS A CURSAR EN LA UNIVERSIDAD DE DESTINO Y LAS ASIGNATURAS DE LA UPV/EHU A RECONOCER

Helmugako unib. Egingo diren irakasgaiak Asignaturas a cursar en univ. extranjera			Baliozkotu nahi diren UPV/EHUko irakasgaiak Asignaturas de la UPV/EHU a reconocer			
Kodea Cod.	Irakasgaiaren izena Denominación asignatura	Kreditu. Cred.	Kodea Cod.	Irakasgaiaren izena Denominación asignatura	Kreditu.C red.	Maila Curso

Ikaslearen sinadura/ Firma estudiante	
Goian aipatutako programaren UPV/EHko koordinatzaile gisa, ikasle honen mugikortasunarekin ados nago. Ikasleak "helmugako unibertsitatea" zutabearen aipatutako irakasgaiak egingo ditu eta "UPV/EHU" zutabearen agertutakoak baliozkotuko zaizkio, beti ere, helmugako unibertsitateko azterketa edo progak gainditzen baditu.	Como coordinador/a/responsable en la UPV/EHU del programa arriba mencionado, doy mi conformidad a la movilidad del/la estudiante arriba indicado. El/la mismo/a cursará las asignaturas relacionadas en la columna denominada "universidad de destino" y le serán reconocidas por las asignaturas que figuran en la columna "UPV/EHU", siempre y cuando supere los exámenes o pruebas de la universidad de destino
Koordinatzailearen sinadura Firma de la coordinadora Data/Fecha <div style="text-align: right;"> oordinatzailearen sinadura Firma de la coordinadora </div>	

ERASMUS programa. Hitzarmenean aldaketak egiteko dokumentua

General information

Student	Last name(s)	First name(s)	Date of birth	Nationality	Gender	
	ESI		Study cycle	Field of education (ISCED)	Field of education (clarification)	
Sending Institution	Name	Faculty/Department	Erasmus code	Country	Administrative contact person name; email; phone	
Receiving Institution	Name	Faculty/Department	Erasmus code	Country	Administrative contact person name; email; phone	
The level of language competence in _____ [indicate here the main language of instruction] that the student already has or agrees to acquire by the start of the study period is: A1 <input type="checkbox"/> A2 <input type="checkbox"/> B1 <input type="checkbox"/> B2 <input type="checkbox"/> C1 <input type="checkbox"/> C2 <input type="checkbox"/> Native speaker <input type="checkbox"/>						

Mobility type and duration

Mobility type (select one)	Estimated duration (to be confirmed by the Receiving Institution)
<ul style="list-style-type: none"> • Semester(s) <input type="checkbox"/> / Virtual component <i>(only if applicable)</i> <input type="checkbox"/> • Blended mobility with short-term physical mobility <input type="checkbox"/> • Short-term doctoral mobility <input type="checkbox"/> / Virtual component <i>(only if applicable)</i> <input type="checkbox"/> 	Planned period of the physical mobility: <ul style="list-style-type: none"> • from [day (optional)]/month/year] • to [day (optional)]/month/year]

Please note: Based on the above selection, the relevant tables will be generated in the Online Learning Agreement to describe the study programme and recognition. Only applicable tables and fields below will be visible to the student, sending and receiving institution.

Study Programme at the Receiving Institution

Mobility type: Semester(s)

Table A	Component code (if any)	Component title at the Receiving Institution (as indicated in the course catalogue)	Semester [e.g. autumn/spring; term]	Number of ECTS credits (or equivalent) to be awarded by the Receiving Institution upon successful completion
				Total: ...

Web link to the course catalogue at the Receiving Institution describing the learning outcomes: *[web link to the relevant information]*

Recognition at the Sending Institution

Mobility type: Semester(s)

Table B	Component code (if any)	Component title at the Sending Institution (as indicated in the course catalogue)	Semester [e.g. autumn/spring; term]	Number of ECTS credits (or equivalent) to be recognised by the Sending Institution	Automatic recognition
					Yes <input type="checkbox"/> No <input type="checkbox"/>
					Yes <input type="checkbox"/> No <input type="checkbox"/>
				Total: ...	

Provisions applying if the student does not complete successfully some educational components: *[web link to the relevant information]*

Changes to the learning agreement

Mobility type: Semester(s)

Exceptional changes to Table A (to be digitally approved by the student, the responsible person in the Sending Institution and the responsible person in the Receiving Institution)						
Table A2	Component code (if any)	Component title at the Receiving Institution (as indicated in the course catalogue)	Deleted component [tick if applicable]	Added component [tick if applicable]	Reason for change	Number of ECTS credits (or equivalent)
			<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>		
			<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>		

Exceptional changes to Table B (if applicable) (to be digitally approved by the student and the responsible person in the Sending Institution)							
Table B2	Component code (if any)	Component title at the Sending Institution (as indicated in the course catalogue)	Deleted component [tick if applicable]	Added component [tick if applicable]	Reason for change	Number of ECTS credits (or equivalent)	Automatic recognition
			<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>			Yes <input type="checkbox"/> No <input type="checkbox"/>
			<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>			Yes <input type="checkbox"/> No <input type="checkbox"/>

Exceptional changes to Table C (if applicable) (to be digitally approved by the student and the responsible person in the Sending Institution)						
Table C2	Component code (if any)	Component title or description of the study programme at the Receiving Institution	Short description of the virtual component (obligatory field):	Reason for change	Number of ECTS credits to be awarded	Automatic recognition
						Yes <input type="checkbox"/> No <input type="checkbox"/>
						Yes <input type="checkbox"/> No <input type="checkbox"/>

Commitment of the three parties

Any Mobility type

By digitally signing this document, the student, the Sending Institution and the Receiving Institution confirm that they approve the Online Learning Agreement and that they will comply with all the arrangements agreed by all parties. Sending and Receiving Institutions undertake to apply all the principles of the Erasmus Charter for Higher Education relating to mobility for studies. The Beneficiary Institution and the student should also commit to what is set out in the Erasmus+ grant agreement. The Receiving Institution confirms that the educational components listed are in line with its course catalogue or as agreed otherwise and should be available to the student. The Sending Institution commits to recognise all the credits or equivalent units gained at the Receiving Institution for the successfully completed educational components and to count them towards the student's degree. The student and the Receiving Institution will communicate to the Sending Institution any problems or changes regarding the study programme, responsible persons and/or study period.

Commitment	Name	Email	Position	Date	Digital Signature
Student			Student		
Responsible person at the Sending Institution					
Responsible person at the Receiving Institution					

BESTE NORAKOAK programa. Hitzarmenean aldaketak egiteko dokumentua

LEARNING AGREEMENT

Name of student: Host Institution: Country:

CHANGES TO ORIGINAL PROPOSED STUDY PROGRAMME/LEARNING AGREEMENT (to be filled in ONLY if appropriate)

Deleted course unit code	Added course unit code	Course unit title at the host institution	Number of credits	
			deleted course unit	added course unit

Add as many lines as necessary

Student's signature date:
--

HOME INSTITUTION: UPV/EHU	
We confirm that the proposed programme of study/learning agreement is approved.	
Departmental coordinator's signature 	Institutional coordinator's signature
Date:	Date:

HOST INSTITUTION	
We confirm that the proposed programme of study/learning agreement is approved.	
Departmental coordinator's signature 	Institutional coordinator's signature
Date:	Date:

ANEXO. REDUCCIÓN O AMPLIACIÓN DE ESTANCIA DE INTERCAMBIO

Reducción de estancia de curso completo a medio curso

Fecha de inicio de la estancia: __/__/2018 Fecha de fin de la estancia: __/__/2018 Fecha de aprobación: ____/____/2018	Firma del estudiante	Firma y sello del coordinador universidad origen	Firma y sello del coordinador universidad de destino
---	-------------------------	--	---

Ampliación de estancia de medio curso a curso completo

Fecha de inicio de la estancia: __/__/2018 Fecha de fin de la estancia: __/__/2018 Fecha de aprobación: ____/____/2018	Firma del estudiante	Firma del coordinador universidad origen	Firma del coordinador universidad de destino
---	-------------------------	--	---

* **Nota:** El documento debe ser cumplimentado por ordenador o a mano con letras mayúsculas. **No se admitirán enmiendas o tachaduras en este impreso**

Egonaldia Luzatu/Mozteko Eskaera

SOLICITUD DE PRÓRROGA/REDUCCIÓN DE ESTANCIA APPLICATION FOR EXTENSION/REDUCTION OF THE MOBILITY PERIOD

Nombre del/de la estudiante Name of the Student	
Inscrito/a en la Universidad del País Vasco (EBILBAO01) Escuela de Ingeniería de Gipuzkoa Coming from University of the Basque Country (EBILBAO01) Faculty of Engineering, Gipuzkoa	
que está estudiando en el marco del programa de intercambio durante el curso 20__/___ en la Universidad de _____ who is studying in the framework of the exchange programme for the academic year 20__/___ at the _____ (host University)	
quiere modificar la duración de su estancia y prorrogarla/reducirla de _____ a _____ ask to modify his/her stay period and extend/reduce it from _____ to _____	

Firma del/de la estudiante Student's signature	Firma y sello del/ de la Coordinador/a de la Universidad de origen Home Institution. Exchange coordinator signature and stamp	Firma y sello del/ de la Coordinador/a de la Universidad de destino Host Institution. Exchange coordinator signature and stamp
Fecha/Date	Fecha/Date	Fecha/Date

NIRE EGONALDIA AMAITZEAR DAGO. ETA ORAIN?

Egonaldi amaierako ziurtagiria

Egonaldi amaierako ziurtagiriaren txantiloia GAURetik inprimatu eta behin sinatu eta zigilua jarri diotenean Nazioarteko harremanen bulegora bidali:

- Erasmus+/Latinoamerika/Beste Norakoak: movilidad.internacional@ehu.eus; politecnica.internacional@ehu.eus .
- SICUE: seneca@ehu.eus; politecnica.internacional@ehu.eus

Hilabeteko epea duzu dokumentua bidaltzeko. Bidaltzen ez bada, ezingo da kanpoan burututako irakasgaien onarpena tramitatu.

Inkesta

- Ikaslearen Azken Txostena: Egonaldia amaitu ostean ikaslearen azken txostena egin beharko da, webgunearen bidez. Ikasleak korreo elektronikoz jasoko du mezua. Ezinezkoa da mezu horiek zehazki noiz igorriko diren esatea; beraz, "ikasle" posta korporatiboko helbideari adi egoteko eskatu behar da, ikasturtea amaitu bitartean.
- GIE-ko inkesta: Bi helburu nagusi ditu. Alde batetik, programetan parte hartzen duten ikasleen esperientziaz baliatzea, mugikortasun programa batean parte hartzeko aukera kontsideratzen ari den ikaslea orientatzeko. Bestalde, Eskolako norako eskaintza aztertu eta beste unibertsitateekin indarrean dauden hitzarmenak berrikustea. GIEko Nazioarteko Zuzendaritzatik bidaliko da inkesta betetzeko mezua. Noten baliozkotzea tramitatzeko, ezinbestekoa izango da inkesta betetzea.

Notak/baliozkotzea

Hitzarmen akademikoan jasotakoaren arabera irakasgaien edota Gradu Amaierako Lanaren onarpena gauzatu ahal izateko, helmugako unibertsitateak zure notak helarazi behar dizkigu. Batzuetan zuei bidaltzen dizkizute zuzenean. Horrela bada, ekarri guri.

Noten konbertsioa, koordinatzailearekin izandako bileran helarazten zaizun taularen arabera egingo da.

Edozein kasutan, notak GAUREn grabatzeko ezinbestekoa izango da, aurrez egonaldi amaierako ziurtagiria Leioara bidaltzea eta aipatutako inkestak osatzea.

Gradu Amaierako Lana

Zure hitzarmenean Gradu Amaierako Lana jasota baldin badago, destinoko unibertsitatean landu eta aurkeztu behar duzu.

Bueltan ekarri beharko dituzu GrALaren kopia bat (pdf. dokumentua) eta nota.

Irakasgai guztiak gaindituta dituzunean GrALaren matrikula egin eta baliozkotuko zaizu.

Ez Betetzeak

UPV/EHUK eskatutako dokumentu eta ziurtagiri guztiak epe barruan aurkeztu behar dituzu. Inprimakiak zuen GAUREn profilean aurki ditzakezu.

- Erasmus+/Latinoamerika/Beste Norakoak: movilidad.internacional@ehu.eus .
- SICUE: seneca@ehu.eus

Gainera, harrera unibertsitatean errendimendu ona duzula egiaztatu beharko duzu, gutxienez hitzarmen akademikoan jasotako kredituen erdia gaindituz, OLS-en hizkuntza testak egin beharko dituzu Erasmus+ programako partaidea baldin bazara eta IKASLEAREN AZKEN TXOSTENA osatu beharko duzu.

[Hasiera](#)

UPV/EHUko Nazioarteko Harremanetako bulegora beharrezko dokumentazio guztia bidali duzula konprobatu dezakezu GAURen, zure profilean sartu, helmugako unibertsitatea aukeratu, eta XEHETASUNAK botoia sakatu.

Laburtuz, bidali beharko dituzun dokumentuak izango dira:

- ERAMUS subentzio hitzarmena, AL/BNB subentzio hitzarmena, errektoreordetzak AL/BNB
- Eusko Jaurlaritzako diru laguntza eskaerarako beharrezko dokumentazioa
- Egonaldi hasierako ziurtagiria
- Egonaldi amaierako ziurtagiria

Ikasleari dagozkion [betebehar hauek guztiak](#) inolako azalpenik gabe bete ezean, hainbat ondorio etor litezke, kasuankasu: beka ezeztatzea, ikasketa kontratua etetea, finantza hitzarmena ezeztatzea (eta ondorioz, aurretik jasotako finantza laguntza guztia itzultzeko derrigortasuna) eta errektoreordetzatik gerora sustatutako zeinahi mugikortasun programatako hautapen prozesuetatik kanpo geratzea.

Bai UPV/EHUko Nazioarteko Harremanetarako bulegoak eta baita GIEko Nazioarteko Harremanetako zuzendaritzak ere, ikasle@ehu.eus kontua erabiliko du nazioarteko mugikortasun programekin zerikusia duen edozer komunikatzeko. beraz, ohitu zaituzte kontu hori erabiltzera.

LABURPENA

Plaza eman didate. Zer egin behar dut orain?

Informatu:

- Kontsultatu nola kudeatu behar duzun destinoan onarpena:
 - o Erasmus+: Kontsulta ezazu destinoko unibertsitateko web orrialdea. GIEko Nazioarteko Zuzendaritzatik argibideak helaraziko dizkizute
 - o [SICUE](#): Ikaslea arduratuko da.
 - o [Latinoamerika: UPV/EHUko Nazioarteko Harremanetako bulegoaren web orrian aurkituko duzu informazioa](#)
 - o [Beste Norakoak: UPV/EHUko Nazioarteko Harremanetako bulegoaren web orrian aurkituko duzu informazioa](#)
- Aurretik destinoan egondako ikasleekin/destino berera doazen ikasleekin kontaktatu

Koordinatzailearekin hitzarmen Akademikoa adostu: Destinoko unibertsitateko irakasgaiak aztertu eta hitzarmen proposamen justifikatua koordinatzaileari aurkeztu horretarako prestatutako txantiloian

Mediku aseguru: Egonaldi osoa kubrituko duen mediku aseguru kontratatu eta Nazioarteko Harremanetako zuzendariordeari egiaztatzea entregatu

Ikaslearen betebeharrak: Ikasleen betebeharren dokumentua irakurri, sinatu eta entregatu

Beharrezko dokumentazioa prestatu eta epe barruan entregatu: Behin behineko hitzarmen Akademikoa (koordinatzailearekin adostutakoa) / Espediente Akademikoa (eskatu GIEko Nazioarteko Harremanetako Zuzendaritzan) / Elkartruke ikaslea zarenaren ziurtagiria (GAURen daukazu) / NAN edota pasaportearen kopia (konprobatu indarrean daudela!) / Instripu eta Aberriratzte-Aseguru / Etab.

Parte-hartze baldintzak bete : Joan aurretik lehenengo maila guztia gainditua izan behar duzu. Bestela, mugikortasunari uko egin beharko diozu.

Destinoan onartu naute. Joan aurretik zer egin behar dut?

Bisadoak: Destinora joateko bisadoa behar baduzu, kontsulta ezazu nola egin behar duzun: [UPV/EHU-AL Programa /// Beste Norakoak programa](#)

Matrikula: Joan aurretik UPV/EHUko matrikula egin. Ikasketak kanpoan egingo dituzun arren, UPV/EHUko ikaslea zara. Ezin duzu atzerrira joan matrikula egin gabe.

Mediku Aseguru

- Oraindik egin ez badizu, medikuntza, istripu eta aberriratzeko aseguru kontratatu eta politecnica.internacional@ehu.eus helbidera bidali ziurtagiria.
- Europara bazoaz, Europako Osasun Txartela egin/eguneratu eta bidali kopia politecnica.internacional@ehu.eus helbidera
- Erantzunkizun Zibileko aseguru eskatzen badizute destinoan, GIEko Nazioarteko Harremanetako zuzendariordean eskatu

Diru Laguntzak: UPV/EHUko Nazioarteko Harremanetako bulegotik kudeatzen dituzte. Ziurtatu eskaerak epe barruan egiten dituzula: [Mugikortasunerako diru laguntzak](#)

Hizkuntza test-a: Erasmus+ programan parte hartzen baduzu, hizkuntza test bate gin beharko duzu OLS plataforman. Jasoko duzu lotura.

Destinoko unibertsitatean nago. Zein pausu jarritu behar ditut?

Egonaldi Hasierako Ziurtagiria: GAURetik jaitsi, destinoko unibertsitateari sinatu eta zigorla jartzeko eskatu eta bidali movilidad.internacional@ehu.eus / seneca@ehu.eus / politecnica.internacional@ehu.eus helbidera, mugikortasun programaren arabera

Hitzarmen Akademiko definitiboa/ aldaketak: Hitzarmenean aldaketak egin behar badituzu, hilabeteko epean Nazioarteko Harremanetako Zuzendariordeari (maddi.garmendiaa@ehu.eus) proposamen berri justifikatua bidali behar diozu. Adostutako aldaketak jasotzen dituen dokumentua sinadura eta zigorluekin bidali (Ikaslea/Jatorriko koordinatzailea/destinoko koordinatzailea)

Etengabeko Ebaluazioari uko egitea: Hitzarmenean jasota ez dagoen GIEn matrikulatutako irakasgairen batean, etengabeko ebaluazioa jarraitu ezin baduzu, kanpoan zaudelako, etengabeko ebaluazioari uko egiteko egin beharrekoak gauzatu.

Egonaldia luzatu/mozteko eskaera: Iraupen aldaketa eskatu. Onartzen bada, hitzarmen Akademikoa aldatu eta aseguruaren iraupena luzatu hala badagokio.

Deialdiak: Kontutan hartu hitzarmenean jasotako irakasgaietako dagokienez, destinoko unibertsitatean ezarritakoak direla deialdiak eta ezin duzula azterketa UPV/EHUan egin.

Nire egonaldia amaitzean dago. Eta orain?

Egonaldi Amaierako Ziurtagiria: GAURetik jaitsi, destinoko unibertsitateari sinatu eta zigorla jartzeko eskatu eta bidali movilidad.internacional@ehu.eus / seneca@ehu.eus helbidera, mugikortasun programaren arabera

Inkesta:

- UPV/EHU-ko Nazioarteko Harremanetako bulegoak bidalitako azken txostena bete
- GIEko Nazioarteko Harremanetako zuzendariordetzak bidalitako inkesta bete.

Notak/Baliozkotzea: GIEko Nazioarteko Harremanetako zuzendariordetzak kanpoan egindako irakasgaien baliozkotzea egingo du, noten ziurtagiria jasotzen duenean. Baliozkotzea gauzatzeko ezinbestekoa izango da aurreko bi pausuak osatzea (egonaldi amaierako ziurtagiriaren bidalketa eta inkesten betetzea).